



*Bigarren Lehendakariordea eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko Sailburua
Vicepresidente Segundo y Consejero de Economía, Trabajo y Empleo*

AGINDUA, 2026KO UZTAILAREN 6KOA, JAURLARITZAREN BIGARREN LEHENDAKARIOEDE ETA EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILBURUARENA, GIPUZKOAKO HIRUGARREN ADINEKOEN EGOITZA PRIBATUEN SEKTOREAN, KOMUNITATEARI EMATEN ZAION FUNTSEZKO ZERBITZUARI EUTSIKO ZAIOLA BERMATZEN DUENA, 2026KO UZTAILAREN 9AN ETA 10EAN DEITUTAKO GREBAN.

ELA sindikatuak greba deitu du Gipuzkoako hirugarren adinekoen egoitza pribatuen sektorean, 2026ko uztailaren 9an eta 10ean, lanaldi osoan.

Greba-deialdiaren helburua Lan Agintaritzari bidalitako jakinarazpenean dago jasota. Jakinarazpen hori hasitako espedientean dago.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa eta osasuna. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako oinarritzko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarritzko eskubideetako bat bera ere.

Argi dago oinarritzko eskubideak murrizten dituen edozein neurriren konstituzionaltasuna proportzionaltasun-printzipioak zehaztu behar duela, eta printzipio hori gainditu egiten dela neurriak Konstituzio Auzitegiak ezarritako hiru betekizun edo baldintza betetzen ez baditu (122/1990 KAE, 123/1990 KAE, 8/1992 KAE eta 123/2003 KAE):

1. Egokitasun-judizioa. Haren aplikazioak proposatutako helburua lor dezake.
2. Premia-judizioa. Egoera ikusita, ez dagoela neurri egokiagorik eraginkortasun bereko helburu hori lortzeko.
3. Proportzionaltasun-judizioa. Emandako neurria edo konponbidea haztatua edo orekatua izatea, haren aplikaziotik interes orokorrerako onura edo abantaila gehiago eratortzen direlako gatazkan dauden beste ondasun edo balore batzuei kalteak baino.

Gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak ematen direla ziurtatzeak muga bat dakar greba-eskubidea egikaritzeko; hori dela eta, beharrezkoa eta ezinbestekoa da jokoan dauden interesen artean haztaper bat ezartzea. Hala, grebalarien eskubidea mugatu egin beharko da – amore eman beharko du, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan –, baldin eta grebaren bidez beren interesak defendatzeak kalte larriagoa eragiten badio edo eragin badietzaioke funtsezko

zerbitzua emateko eskubidearen hartzaileari edo titularrari, beren aldarrikapenen edo asmoen arrakastarik ezak baino. Horretarako, hizpide dugun greba-deialdiaren ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan.

Eremu funtzionalari dagokionez, grebak sektore bati eragiten dio, zehazki, Gipuzkoako hirugarren adinekoen egoitza sektoreari, non eragindako zerbitzuen erabiltzaileen autonomia mugatuta dagoen, batzuen eta besteen desgaitasun-maila baten ondorioz.

Denbora eremuari dagokionez, segidako bi eguni eragiten dien greba-deialdia da, lanaldi osoan; zehazki, uztailaren 9an eta 10ean, lanaldi osoan.

2025eko ekainetik, sektore horretan bertan beste zortzi greba-deialdi egin dira, guztira 25 eguni eragin dietenak, honela banatuta: 2025eko ekaina, uztaila, iraila, azaroa eta abendua eta 2026ko urtarrila, otsaila, martxoa, apirila eta ekaina. Horri deialdi honi dagozkion bi greba-egunak gehitu behar zaizkio.

Duela gutxi, sindikatu berak grebak deitu ditu hainbat enpresatan, zortzi lantoki jakinetan (Argixao Zumarraga Zentroa, La Paz Andre Maria, Zumaiko San Juan, Domusvi Villa Sacramento, Txara 2 egoitza-zentroa, Erreterriako Jesusen Bihotza Egoitza, Ordiziako San Jose Egoitza eta Erreterriako Sanmarkosene Zentro Gerontologikoa) lan egiten duten langileei eragiten dietenak, 2026ko ekainaren 29ko 00:00etan hasi eta uztailaren 29ko 23:59an amaituz. Deialdi espezifiko horien ondorioz, duela hilabete batzuetatik hona zentro horietan egiten ari diren grebak beste hilabete batez jarraitu dute etenik gabe zentro horietan.

Kontuan hartuta deialdi espezifiko horien denbora-ezaugarriak funtsean desberdinak direla aztergai dugun Gipuzkoako hirugarren adinekoen egoitza pribatuen sektorerako egindako deialdikoekin alderatuta – bi eguneko iraupena izan zuen deialdi horrek –, egokitze jotzen da gutxieneko zerbitzuak ezartzen dituen beste agindu bat edo batzuk ematea; izan ere, eragindako zentroetako grebak ondoz ondoko hainbat hilabeteko iraupen luzea izan dute – uztailean zortzi hilabete beteko dituzte sei zentroan, sei hilabete zentro batean eta bost hilabete beste batean –.

Horrenbestez, behar bezala babestu behar dira bizitzarako, osotasun fisiko eta moralerako eta osasun-babeserako eskubideak —Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan jasotakoak—, zeinak agintari publikoek bermatu behar dituzten beharrezko zerbitzuak eskainiz eta prebentzio neurriak ezarriz, eta, aldi berean, greba egiteko eskubidea zilegi dela kontuan hartuta. 10.1. artikulua xedatzen duenez, gizabanakoaren duintasuna ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri da. Halaber, Konstituzioaren 49. artikulua xedatzen duenez, «Botere publikoek aurreneurri-, tratamendu-, bizkortze- eta gizarteratze-politika egingo dute elbarri fisikoentzat, zentzumen-elbarrientzat eta elbarri psikikoentzat; horiei, eurek behar duten arreta berezia emango zaie, eta bereziki babestuko dira, titulu honek herritar guztiei ematen dizkien eskubideak egikaritu ahal izateko».

Bestalde, osasunaren babesa herritarrek gutxieneko osasun-prestazioak eskatzeko duten eskubide gisa islatzen da, giza duintasunaren eta estatu bakoitzaren garapen sozial eta ekonomikoaren arabera. Hala, Giza Eskubideen Adierazpenak (NBE, 1948) 25.1 artikuluan dioenez, «Pertsona orok du osasunerako eta ongizaterako eskubidea, eta, bereziki, laguntza

medikorako eta beharrezko gizarte-zerbitzuetarako», eta zentzu berean adierazten dira Europako Gutun Sozialaren 11. artikulua, Europako Kontseiluarena (Turin, 1961) eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren (NBE 1966) 12. artikulua.

Aurrekoarekin bat etorritz, Gipuzkoako hirugarren adinekoen egoitza pribatuen sektorean greba-deialdi hau egiteko, beharrezkoa da gobernu-agintaritzak bidezko neurriak hartzea, ematen duen egoitza-arretan funtsezko zerbitzuari eutsiko zaiola bermatzeko, honako arau hauetan ezarritakoa kontuan hartuz: Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikulua eta horrekin bat datozenak; eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua (uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren bidez aldatua), eta Laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentroei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretua, betiere Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Horren haritik, Lan Harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege-dekretuaren 10. artikuluko bigarren paragrafoak «gobernuaren agintaritzari» esleitzen dio greba-kasuetan horrelako zerbitzuak ematea ziurtatzeko beharrezko neurriak hartzeko –hala badagokio– eskumena; Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak horren inguruan egindako interpretazioaren arabera (besteak beste: 11/1981 epaia, apirilaren 8koa; 26/1981 epaia, uztailaren 17koa, eta 51/1986 epaia, apirilaren 24koa), erreferentzia hori Gobernuari edo gobernu-ahalmenak egikaritzen dituzten organoei dagokie.

Baina eskumen hori gauzatzeak ezin du, inondik inora, de facto ezabatu greba egiteko eskubidea, ezta eskubide horren edukia hutsaldu ere, eskubidea gauzatu bitartean bermatu beharreko gutxieneko zerbitzuek normaltasun-itxura emanda; horrela, izaera mugatzailea kontuan hartuta ezarri beharrezkoa da. Horregatik, dagoeneko ezarrita dagoen jurisprudentzia jarraituz, beharrezkoa da, izaera mugatzaile horren barruan, proportzionaltasun egokia ere bermatzea, babestu beharreko gainerako eskubideei begira; hala, ongi arrazoitu eta justifikatu behar dira murrizketa horiek.

Izan ere, lehen aipatutako arau-konfigurazioaren arabera, adinekoentzako egoitzek eta eguneko zentroek «funtsezko» izaera dute, neurri handi batean, beren prestazioen onuradunak mendekoak direlako, eta, kasu gehienetan, gabezia handiak dituztelako beren osasunean, eta sistemaren laguntza integrala behar dutelako autonomiarako eta lege onartuta dituzten mendetasun-gradu desberdinei arreta emateko. Horri gehitu behar zaio laguntza pertsonalaren osagai handi bat, eguneroko bizitzako zereginak egiteko. Konstituzioak bereziki babesten ditu pertsona horiek guztiak, Konstituzioaren 50. artikuluan jasota geratu denez, eta Konstituzioaren 15. eta 43.2. artikuluetan jasota dauden bizirako, osotasun fisikorako eta moralerako eta osasunerako eskubideak ere horrekin lotuta daude egoera honetan, baita gizabanakoen duintasuna ere, zeina ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri gisa jasotzen baita 10.1. artikuluan.

Zerbitzu horien guztien oinarritzotasuna bermatu eta, aldi berean, langileen greba eskubidearen funtsezko edukiarekin uztartzeko, honako egoera hauek hartu behar dira kontuan:

1) Egoitza-arretako zerbitzua, abenduaren 14ko 39/2006 legearen, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa, 25. artikuluko terminologiaren arabera, adinekoentzako egoitza harrerako eta laguntza integraleko zentroa da, etengabeko osasun-zerbitzu pertsonalak eskaintzen dituen, iraunkor bihur daitezkeenak baldin eta egoitza hori adinekoaren ohiko egoitza bada. Kategoria horren barnean, honako egoitza mota hauek bereiz daitezke, martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren, Adintsuentzako funtsezko gizarte-zerbitzuei buruzkoa, 2. artikuluan ezarritakoaren arabera:

Tutoretzapeko apartamentuak: Pertsona bakarreko eta/edo bikoteko etxebizitza autonomoen multzoak dira; taldeko zerbitzuak dituzte, aukeran erabiltzekoak; duten egoera psikofisiko eta soziala dela eta, baliabide gehiagorik behar ez duten pertsona nagusientzat dira.

Etxebizitza komunitarioa: Bizikidetza-unitatea, gehienez 14 plazakoa, nolabaiteko autonomia-maila duten adinekoentzat sortua, eta familiakoaren antzeko giroa eskaintzen duena.

Egoitza: 14 plazatik gorako edukiera duen bizikidetza-zentroa, etxebizitza iraunkor eta partekatua izateko sortua, eta mendekoei etengabeko arreta integrala eskaintzen diena. Gradu handiko ezintasunak dituztenei laguntzeko behar adinako baliabide materialez hornituko da ezinbestean.

2) Eguneko zentroko zerbitzuak mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta integrala eskaintzen die egunez, autonomia pertsonala hobetzeko edo autonomia pertsonalaren ahalik eta maila hoberenari eusteko, eta familiei edo zaintzaileei laguntzeko. Ikuspegi biopsikosoziala oinarri hartuta, esan daiteke aholkularitza, prebentzioa, errehabilitazioa, autonomia sustatzeko orientazioa, gaikuntza edo asistentzia-arreta eta laguntza pertsonala ematen dituela bereziki. Zentro hauen tipologia, horiek arautzen dituen araudiaren arabera, honako hau da: 65 urtez beherakoentzako eguneko zentroak, 65 urtez gorakoentzako eguneko zentroak eta arreta espezializatuko eguneko zentroak, zaintza espezifikoak eskaintzen dituztenak.

3) Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikuluan, hiru mendekotasun-gradu ezartzen dira, eta gradu horren arabera zehazten da mendekotasuna duten pertsonen arreta. Hori horrela izanik, «mendekotasun handia» (III. gradua) duten pertsonen egunero askotan behar dute laguntza eguneroko oinarritzko jarduera batzuk egiteko, eta beste pertsona baten edo batzuen etengabeko laguntza behar dute, guztiz galduta dutelako beren autonomia fisiko, mental, intelektual edo sentzoriala. «Mendekotasun larria» dutenek (II. gradua), berriz, laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarritzko jarduera batzuk egiteko, egunean bizpahiru aldiz, baina ez dute behar kanpoko zaintzaile batek etengabe laguntzea; nolanahi ere, laguntza premia zabalak dituzte autonomia pertsonalaren arloan. Azkenik, «mendekotasun arina» dutenek (I. gradua) laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarritzko jarduera batzuk egiteko, gutxienez egunean behin, edo laguntza behar izaten dute, tarteka edo hein batean, beren autonomia pertsonalean.

4) Egoiliarren ezintasun-mailaren eta horren ondoriozko mendekotasunaren arabera, laguntza eta arreta integralerako hainbat maila daude zehaztuta pertsona horien eguneroko bizitzako oinarritzko jardueretan.

5) Sektore horretan pertsonen ematen zaizkien zerbitzu guztiek ez dute eragin bera haien baldintza biopsikosozaletan. «Zuzeneko arreta-zerbitzuak» izenekoak dira (osasun-arreta, arreta geriatrikoa eta abar), zalantzarik gabe, greba-egoeretan mantendu beharreko funtsezko zerbitzuak, mendekotasuna duten pertsonekin zuzenean lotuta daudelako. «Arreta zuzeneko zerbitzuen» barnean ditugu, halaber, otorduen prestaketa eta otordu-zerbitzua, hidratazioak, botika-hornidurak, siesta terapeutikoak eta higiene pertsonala, eta zeregin horiek guztiek osatzen dute zerbitzuko erabiltzaileen —bereziki, mendetasun handia dutenen— osasun narriatua zaintzeko beharrezkoa den laguntza-tratamendu integralaren zati bat. Era berean, «zuzeneko arreta zerbitzuaren» barruan sartzen da altxatzeko, garbitzeko, janzteko edo jateko laguntza ematea.

6) Zuzeneko arretako zerbitzuez gain, beste zerbitzu batzuk ere badaude, neurri txikiagoan bada ere, ematen direnak eta aurrekoen zeharkako mende daudenak (sukaldea, garbiketa, garbitegia, etab.) edo egoitza-instalazioen eta -zerbitzuen koordinazioan, mantentze-lanetan eta segurtasunean laguntzen dutenak.

Sukalde-zerbitzuari dagokionez, elikagaiak prestatzeko mantendu beharko da, baina elikagaiak ahalik eta modu erraz eta sinpleenean egingo dira, medikuaren berariazko agindu zehatzik egon ezean, eta erabili eta botatzeko erabiliko dira, ahal izanez gero, zeregin horretan ahalik eta denbora gutxien erabiltzea dakarten protokolo edo metodologiaren arabera.

Era berean, garbiketa-zerbitzuek, zeharkako zerbitzuek, baina beharrezko higienea zaintzeko beharrezkoak direnek, intentsitate txikiagoarekin, egoiliarren osasuna arriskuan jartzea saihesten duten oinarritzko zereginak egin beharko dituzte.

Garbitegi-zerbitzuan, arropa zuria eta zerbitzuko gainerako tresnak garbitzeaz gain, egoiliarren arropa pertsonala ere garbitzen da. Aipatutako arropa guztietatik, egoiliarrekin harreman zuzena duena da eman beharreko zerbitzutzat hartu behar dena.

Mantentze-zerbitzuek, funtsezkoak izan gabe, funtsezko ekarpena egiten dute greba honetan gutxieneko gisa ezartzen diren zerbitzu eta instalazioek behar bezala funtziona dezaten. Gutxieneko zerbitzu horien funtzionamenduan eragina izan dezaketen ustekabekoak babestu beharreko funtsezko zerbitzuen berme gisa erantzun beharko dira.

Harrera-atezaintza zerbitzuari dagokionez, beharrezkoa da zerbitzu hori ematea egoiliarren segurtasuna zaintzeko, egoitzetako sarrera eta irteera kontrolatuz. Horregatik, beharrezkotzat jotzen da gutxieneko zerbitzuak ezartzea sarbide nagusiko atea zaintzeko eta kontrolatzeko soilik.

7) Zentro horien ohiko funtzionamenduak intentsitate-maila desberdinak ditu egunean zehar burutu beharreko zereginen dagokionez, pertsonen jarduera funtzionalaren eta ziklo biologikoaren arabera, eta jarduera handiagoa metatzen da goizeko lehenengo orduan (jaiki, higiene pertsonala, jantzi, medikazioa eta abar), eguerdiko otorduan eta eguneko azken orduetan (afaria, oheratu, pixoihala aldatu, medikazioa eta abar); beraz, ordu horietan arreta

pertsonalizatu handiagoa behar da. Hortaz, eguneko gainerako orduetarako ezarritako langile-kopurua baino handiagoa ezarri behar da aipatutako ordu horietarako, egoiliarren beharrei arreta emateko jarduera txikiagoa baita gainerako ordu horietan.

8) Grebaren eraginpeko zentroen espazioaren konfigurazioa ere kontuan hartzekoa da. Hau da, greba-egoera batean zentro bakoitzari zer giza baliabide banatuko zaizkion ezartzeko orduan, egoiliarrei arreta behar bezala eta segurtasunez emango zaiela bermatu behar da, eta gutxieneko zerbitzuak baldintza posibleetan eta horiek eman behar dituzten pertsonen arriskurik sortu gabe emango direla.

9) Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan osasun-sistema unibertsala dagoenez, eta grebaren iraupena kontuan izanik, zera pentsa daiteke: osasun-arreta behar duten larrialdiko eta atzeraezinezko egoeretan egoiliarrei arreta ematea bermatua dagoela larrialdiko osasun-sistemaren bidez. OLT/EUDen egoera bestelakoa da; izan ere, askotan (mendekotasuna edo mendekotasun handia dute pertsonen kasuan batez ere), kronikoa izaten da sendaketak egiteko eta botika-dosiak prestatzeko beharra, eta, beraz, jarduera horiek ez badira betetzen, arriskuan jar daiteke zainketa horiek behar dituztenen osasuna.

10) Greba honen deialdiaren esparruan, zentroak askotarikoak eta heterogeneoak dira; pertsonen mendekotasun-mailetan ere berezitasunak askotarikoak dira, baita kudeaketa-ereduak ere, langileen plantillei eta koadranteei dagokienez batez ere. Hori dela-eta, oso zaila da honelako agindu batean horiek guztiak homogeneizatzea.

Alderdi horiek ere kontuan izan behar dira gutxieneko zerbitzuak zehazteko garaian, egoiliarren oinarritzko eskubideak babesteko ahalegina egin behar baita, betiere gaur egungo errealitate soziokulturalarekin bat datozen duintasun-baldintzak betez, baina ezinbesteko baldintzetara murriztuta, greba-eskubidea ere babestearren eta greba egitera deitutako langile ahalik eta gehienek oinarritzko eskubide hori baliatzeko aukera izan dezaten, bai eta greba egintzat har dadin.

11) Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren II. eranskineko 10. Zehaztapen Teknikoak ezartzen ditu gizarte baliabide hori behar bezala emateko behar diren gutxieneko langile-ratioak, langileen lankarga eta erabiltzaileek merezi duten arreta kontuan hartuta. Ratio horiek saihestu daitezke greba-egoeretan, gutxieneko zerbitzuak finkatzeko garaian, baina egoiliarren oinarritzko eskubideak bermatu egin beharko dira, ezinbestean.

12) Arreta zuzenaren eta 6. puntuan zehaztutako zerbitzuen (garbiketa, sukaldea eta harrera-atezaintza) funtsezkotasun-irizpide bera gertatzen da mendekotasuna duten adinekoentzako eguneko zentroekin ere. Zentro horiek, oro har, egoitzetan baino langile gutxiago dituzte, eta urriaren 17ko 202/2000 Dekretuan arautzen dira. Baimentzeko irizpideak 7. artikuluan araututa daude, I. eranskinari dagokionez (8. apartatua, zehazki, langileei buruzkoa da).

Zentro horiei dagokienez, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren ekainaren 28ko 558/2011 Epaiak xedatzen duenez, *«greban zehar haiek ixtea bateraezina da dekretuak zerbitzu zehatz horiei ematen dien oinarritzko izaerarekin. Gu ere bat gatoz oinarritzko izaera horrekin; izan ere, eguneko zentroei eta desgaitasuna duten pertsonen arretarako zentroei dagokienez, egunean zehar adinekoekin eta desgaitasuna duten pertsonekin duen harremanean oinarritzen da izaera. Pertsona horiek lanegunean egiten den greban zehar haien ardura duten helduen zaintzapean geratu beharko lukete, eta horrek heldu horien askatasuna eta autonomia murriztuko luke beharrezkoak diren beste jarduera batzuk gauzatzeko, funtsean lan jarduera, lanegun bat baldin bada».*

Zentro horietan funtsezko zerbitzutzat hartu behar da, halaber, mendekotasun egoeran dauden pertsonen garraioa, baldin eta egin behar dituzten joan-etorriak (aurreko paragrafoan aipatutako funtsezko zerbitzuak jaso ahal izateko) ezin badira egin haien mugikortasun-ahalmenara egokitutako bestelako garraiobideen bitartez. Zerbitzu hori emango ez balitz, pertsona horiei kendu egingo litzaizkieke laguntza, terapia eta osasunerako arreta eta zerbitzuak, hau da, beren «eguneroko bizitzako oinarritzko funtzioak» deritzenak prebenitu, mantendu eta hobetzeko xedea dutenak (funtzio horiek bermatzen ditu, hain zuzen ere, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, 24. artikuluan).

Horren harira, gobernuko agintaritza honek portzentaje jakin bat zehaztu gabe ezarri izan ditu gutxieneko zerbitzuak, nahikotzat jo izan baita zerbitzua azaldu den bezala emateko xedea ezartzea. Hala eta guztiz ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak bere irizpena eman du gai horri buruz, 2013ko maiatzaren 30eko greba orokorraren deialdiaren kariatz ezarritako gutxieneko zerbitzuei buruzko Aginduz 2013ko irailaren 25ean emandako epaiaren bitartez. Epai horretan, garraio-mota horri dagokion oinarritzko zerbitzuaren izaera aitortzen dio Auzitegiak, eguneko zentroek ematen duten oinarritzko zerbitzura iristea bermatzen duelako. Hala ere, Salaren ustez, xedapenak motibazioa falta du, «zerbitzuok emateko deia jaso duten langileen greba-eskubidearen mugaren proportzionaltasunari erreparatzen bazaio».

Aipatu behar da gobernu honek ez duela ehuneko zehatzik ezarri sektorean errealitate desberdin asko daudelako eta haiek guztiak ezagutzea zaila delako; hori dela eta, aipatutako testua nahikotzat jo zen.

Greba-eskubidea baliatzeko aukera mugatzeak sortzen duen arazoa da kasu honetan aztergaia, zerbitzu hori emateko soilik kontratatu diren eguneko zentroetako langileen kasuan. Izan ere, erabiltzaileen ezintasunen ondorioz, zerbitzu hori emateko guztiz beharrezkoa da gidari bat eta begirale edo laguntzaile bat egotea, eta ezin da ezarri %100etik beherako portzentajerik. Bestalde, kasu hauetan ezin da ezarri eman beharreko garraioaren portzentaje-murrizketarik, zerbitzua ematen bada ere intentsitatea baxuagoa izan dadin. Izan ere, horrek langile horien lanaldia luzatzea eragingo luke, ohiko lanaldia baino luzeagoa ezarrita. Ondorioz, egoera honetan garraio bereziaren funtsezko zerbitzua bermatzeko eman behar den zerbitzuak guztiz mugatu diezaike greba egiteko eskubidea langile horietako batzuei, zerbitzu hori egin dezaketen bakarrak direlako, baldin eta ez badago bestelako garraiobiderik, erabiltzaileen mugikortasun-gaitasunetara aski egokituta dagoenik.

13) Greba-deialdi honen eraginpeko zentroetako langileak era askotakoak dira, enpresa eta erakunde desberdinei atxikita baitaude. Hori horrela, egoitza eta eguneko zentro batzuetan, gerta daiteke langile batzuk grebara deituta egotea eta beste batzuk ez. Hori gertatzen bada, normalean lan horiek egiten dituzten bi kolektibo horien gutzirakoaren gainean zehazten dira greban estali beharreko langile-ratioak eta gutxieneko zerbitzuak.

Orain arte azaldutakoarekin bat etorriz, eta laburpen gisa, Gipuzkoako hirugarren adinekoen egoitza pribatuen sektorean 2026ko uztailaren 9an eta 10ean deitutako greba eskubidea, lanaldi osoan deitutako greba-eskubidea egikaritzen den bitartean, honako hau hartu behar da kontuan, ezinbesteko pertsona-kopuru batek eman behar duela «zuzeneko arretako zerbitzuak» eta zerbitzuen funtsezkotasuna bermatzeko ezinbestekoak diren beste jarduera batzuk. Hori dela eta, Jaurlaritzak agindu honetan zehazten diren gutxieneko zerbitzuak ezarri behar ditu, gatazkan dauden eskubideen funtsezko edukia bateragarri egiteko.

Premisa horietatik abiatuta, besteak beste, Gipuzkoako hirugarren adinekoen egoitza pribatuen bi egun jarraituko greba-deialdi sektorial baten aurrean gaudela, lanaldi osoan, zuzeneko arreta ematen duten gerokultoreen edo antzekoen %50ek zerbitzua eman beharko dute, otorduetako ohiko ordutegian izan ezik, eta goizeko 8:00etatik 10:30era eta 20:00etatik 22:00etara, horietan portzentaje hori %10 handituko da, soilik egoitza eta etxebizitza komunitarioetan, baldin eta erabiltzaileen profilak, % 70etik gora, II. edo III. mailako mendekotasun aitortua badu, gerokultorea edo antzekoa den pertsonala %70ekoa bada. Kuantifikazio hori 2018ko martxoaren 8ko greba orokorra dela-eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 218/2018 prozeduran 2018ko uztailaren 18an emandako epaiaren arabera egiten da. Era berean, gaueko txandan, zuzeneko arretako langileen % 100ek eman beharko du zerbitzua, eta egin beharreko lanak “zuzeneko arretakoak” baino ez dira izango.

Adierazi den bezala, zuzeneko arretaren funtsezkotasun-irizpide bera aplikatu behar zaie eguneko zentroei ere, oro har egoitzetan baino langile gutxiago baitituzte. Horregatik, zuzeneko arretako zerbitzuak zuzeneko arreta hori ematen duten langileen %50ekin mantendu beharko dira, gosariaren eta bazkariaren ohiko ordutegian izan ezik, orduan ehuneko hori % 10 igoko baita.

Garbitegi-zerbitzuari dagokionez, hirugarren adinekoen egoitzetan eragina izan duten eta ondoz ondoko 3 lanaldi baino gutxiagoko iraupena izan duten aurreko greba-deialdietan ez da gutxieneko zerbitzurik ezarri.

Gutxieneko zerbitzu horiek, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 2018ko uztailaren 18an emandako epaiaren ondoren, 2019ko martxoaren 8an, 2019ko irailaren 27an, 2020ko urtarrilaren 30ean, 2023ko azaroaren 28an, 2024ko irailaren 26an, 2025eko urriaren 15ean deitutako eta 2026ko martxoaren 17an greba orokorren harira emandako aginduetan ezarri izan dira.

Gutxieneko zerbitzu berberak ezarri dira, halaber, 2025eko ekainaren 9ko, 2025eko irailaren 23ko, 2025eko azaroaren 17ko, 2026ko urtarrilaren 20ko, 2026ko otsailaren 23ko, 2026ko apirilarean 24ko eta 2026ko ekainaren 8ko aginduetan, Gipuzkoako egoitzen sektore berean deitutako grebetan. Azkenik, modu berean finkatu dira 2022tik gaur arte Araban eta Bizkaian egin diren sektore-greben deialdiak.

Agindu horiek, greba-deialdi honetan gutxieneko zerbitzuak finkatzeko premisa juridikoa izan gabe – doktrina konstituzionalak debekatutako inferentzia –, aukera ematen dute egiaztatzeko agindu honek babestu nahi dituen eskubide eta ondasunetan – grebarena barne – eragin positiboak edo negatiboak izan dituztela deialdi horietako gutxieneko zerbitzuek ezarritako babesei dagokienez. Horregatik, eta kontuan hartuta antzekotasun funtzionala, lurraldekoa eta aldi baterakoa, bai eta eraginpeko pertsonen kolektiboena ere (enpresak, grebarekin bat egin duten pertsonak eta zentroetako erabiltzaileak), agindu honek orain arte ezarri diren gutxieneko zerbitzuei eusten die.

Gobernu Agintaritzari gai honetan eskumen eskusiboa esleitzeak bermatu nahi du greba-eskubidearen erabilerak izan behar dituen mugak Zuzenbidearen arabera baino ezin izango direla ezarri, oinarritzko beste eskubide batzuk betetzera bideratutako funtsezko zerbitzu jakin batzuei eustearren, eta gobernatzeko erantzukizuna eta ahala duenak bakarrik.

Hori dela eta, Lan Harremanei buruzko Errege Lege-Dekretuaren (martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege-Dekretuaren) 10.2. artikulua aipatzen duen prozedura hasi da, eta entzunaldia eman zaie ukitutako aldeei, enpresa-elkarteei eta sindikatuen ordezkariak, baita Foru Aldundiari ere, alegazioak egin ditzaten gizartearentzako funtsezkoak diren zerbitzu hauek bermatzeko beharrianari buruz, bai eta, hala badagokio, estali beharreko gutxieneko zerbitzuak proposa ditzaten ere.

Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuaren 3. artikulua aipatutako Sailaren titularrari esleitzen dizkio ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) lan-legeria betearaztearen arloan bereganatutako eskumenak. Zehazki, aipatutako artikuluen 2. j) apartatuak ezartzen du ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuak xedatzen duen eskumen delegatua egikaritzea, hau da, zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzeraezineko zerbitzuak eskaintzeko ardura duten enpresa, entitate edo erakundeetan greba-eskubideaz baliatzen direnean, Autonomia Erkidegoko funtsezko zerbitzuei jardunean eutsiko zaiela ziurtatzeko behar diren neurriak hartzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, bigarren Lehendakariordeak eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko Sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritza hartuta, honako hau,

EBAZTEN DU:

Lehena. -Agindu honetan ematen diren gutxieneko zerbitzuak honako hauek dira:

1. Gipuzkoako hirugarren adinekoen egoitza pribatuen sektorean langileek greba egiteko duten eskubidea, 2026ko uztailaren 9an eta 10ean, lanaldi osoan deitua, gutxienekotzat hartu behar diren zuzeneko arretako zerbitzuak mantentzearen baldintzapean egongo da. Zerbitzu horiek egoiliarren bizitza eta osasuna beren beharren arabera bermatuko dituzte. Beraz, ohetik jaikitze eta oheratzeko (jarrera-aldaketak eta abar barne), osasun-laguntzarako (medikazioa, sendaketak eta abar), oinarritzko higie pertsonalerako, elikadurarako eta botikak emateko behar diren zerbitzuak emango zaizkie. Era berean, zeharkako oinarritzko gutxieneko arreta-zerbitzu gisa ezartzen dira.

2.- Ondoren aipatzen diren langileek jarraian zehazten den moduan egin beharko dituzte jardura horiek:

2.1. Oro har.

2.1.1. Portzentajea kalkulatzeko:

a) Ehunekoa 1 baino baxuagoa bada, pertsona bati dei egingo zaio, gutxieneko zerbitzuak eman ditzan.

b) Gainerako kasuetan, emaitza zenbaki zatikiarra bada, gutxieneko zerbitzuak eman beharreko denbora kalkulatzeko, zerbitzu bakoitzeko langileen ohiko lanaldia zenbatekoa den hartuko da kontuan.

2.1.2. Artikulu honetan gutxienekotzat hartutako zerbitzuren bat ez duten zentro edo arloetan, aipatzen den langile-kopuru hori ez zaie gehituko beste zerbitzu edo arretei.

2.1.3. Gerta daiteke gutxieneko zerbitzuak betetzeko garaian greba egitera deitutako langileak eta greba egitera deitu gabekoak elkartzea; kasu horretan, agindu honetan finkatutako ehunekoak kalkulatzeko, ohiko moduan lan horiek betetzen dituzten bi kolektibo horietako langileen kopurua hartuko da kontuan.

Era berean, honako ordena honi jarraituz erabakiko da nork bete behar dituen «bat datozen» gutxieneko zerbitzuak: lehenik, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta grebara deituta ez dauden langileei dei egingo zaie; bigarrenik, normalean zerbitzu horiek egiten dituzten eta, deituta egon arren, greban parte hartu nahi ez duten langileei; eta, azkenik, langile horiekin ez bada gutxieneko zerbitzua betetzen, greban parte hartu nahi dutenei deituko zaie.

2.1.4. Medikak bestelako agindu berezi eta zehatzik ematen ez duen heinean, elikagaiak prestatu eta egoiliarrei emateko prozesua ahalik eta modu sinple eta errazenean egingo da, erabili eta botatzeko elementuak baliatuta, ahal izanez gero, eta lanak egiteko ahalik eta denbora gutxien eskatzen duten protokolo edo metodologiaren arabera, grebaren eragina suma dadin eta greba egin nahi dutenetatik ahalik eta langile gehienek baliatu ahal izan dezaten eskubide hori. Ezin izango da, inola ere, egoiliarren osasuna eta osotasuna arriskuan jarri.

2.1.5. Lehentasuna izango dute mendekotasuna duten pertsonen higie pertsonala zaintzeko eta pertsona horiei botika edo elikagai terapeutikoak emateko lanek — betiere, medikuak aginduta edo osasun-protokoloan jasota badaude—, arreta hori gabe arriskuan leudekeen heinean. Halaber, edozein kasutan, oinarrizko higie pertsonalaren bidez egoiliarren osasuna eta osotasuna bermatuta egongo da.

2.1.6. Pertsonen osasunerako edo segurtasunerako berehalako arrisku larria izan dezaketen arloetan egingo dira garbiketa-lanak. Horretarako, deialdi honetan erreferentziazko irizpideak izango dira behin eta berriz aipatu ditugun osasun gomendioak, bai eta Laneko eta Osasuneko Arriskuen Prebentzioko xedapen eta protokolo dokumentatuak ere.

2.2. Egoitzak:

Egoitzetan zuzeneko arreta ematen duten gerokultoreen edo antzekoen % 50ek jarraituko du, otorduetako ohiko ordutegian izan ezik, baita goizeko 08:00etatik 10:30era eta 20:00etatik 22:00etara ere, orduan ehuneko hori % 10 igoko baita.

Erabiltzaileen profilaren % 70 baino gehiago II. edo III. mailako mendetasun-maila aitortua duten egoitzetan soilik, gerokultoreak edo antzekoak % 70 izango dira.

Gaueko txandan, zuzeneko arretako langileen % 100ek emango du zerbitzua, eta egin beharreko zereginak «zuzeneko arreta» gisa egituratutakoak baino ez dira izango.

Txanda guztietan egin beharreko lanak arreta zuzenekoak izan ohi direnak izango dira.

2.3. Eguneko zentroak:

Eguneko zentroetan, greba-egunean zuzeneko arretako zerbitzuei eusteko, arreta zuzen hori ematen duten gerokultoreen edo horien pareko langileen % 50ek lan egingo du. Gosariaren eta bazkariaren ohiko ordutegian izan ezik, ehuneko hori % 10 handituko baita.

Txanda guztietan, egin beharreko zereginak normalean arreta zuzenean egin ohi diren horiek izango dira.

Era berean, eguneko zentroetara joaten diren mendekoen garraio berezia bermatuko da, zentro horietara joateko desplazamenduak ezin badira bestelako garraiobideen bitartez egin, eta/edo horiek ez badaude haien mugikortasun-ahalmenera egokituta.

2.4. Etxebizitza komunitarioak:

Etxebizitza komunitarioetan gerokultoreen edo parekoen %50 egongo da, gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko orduan izan ezik, otorduetan ehuneko hori %10 igoko baita. Gaueko txandan, zuzeneko arretako langileen % 100ek emango du zerbitzua, eta «zuzeneko arretako» zereginak soilik egingo dira.

Txanda guztietan, egin beharreko zereginak normalean arreta zuzenean egin ohi diren horiek izango dira.

2.5. Osasun-langileak:

OLT/EUD langileen %50 egongo da.

2.6. Sukaldeko langileak:

Langileen %50ek lan egingo du. Greban, sukaldeko langileek elikagaiak prestatu beharko dituzte, baina ez dute egin beharko bestelako lanik.

2.7. Garbitzaileak:

Langileen %20ek lan egingo du. Garatu beharreko lanak agindu honen 2.1.6. apartatuan aipatutakoak izango dira eta egiteko beharrezkoa den denboran baino ez dira egingo.

2.8. . Mantentze-lanetako langileak:

Jaiegun bateko langile berberak emango dute, pertsonen osasunerako edo bizitzarako arrisku larria dakarten premiazko eta atzeraezinezko beharrezaneiei bakarrik erantzuteko.

2.9. Ateko/harrerako langileak:

Egoitzako sarrera nagusiko atea zaintzeko eta kontrolatzeko eginkizunetarako baino ez du emango zerbitzu hori pertsona batek, txanda bakoitzean.

Bigarrenena. – Agindu honen lehenengo ebazpen-zatian ezarritako gutxieneko zerbitzuak ez dira aplikatuko berariazko greba-deialdien eraginpean dauden eta gutxieneko zerbitzuak ezartzen dituen beste agindu baten edo batzuen xede diren egoitzetan.

Hirugarrena. – Dagozkion administrazio-izapideak betez gero, aipatutako zerbitzuak aldatu ahal izango dira grebaren iraupenagatik, edo arrazoi higieniko biosanitarioak edo batbateko ezohiko arrazoiak direla-eta ezinbestekoa baldin bada.

Laugarrena. – 1. Grebarako eskubidea erabiltzen ez duten langileek emango dituzte lehenetasunez aipatutako zerbitzuak.

2. Langileen ordezkariak entzun eta gero, Enpresa Zuzendaritzak izendatuko ditu gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten langileak eta langile horiek, txandaka, bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, orain arte esandakoak eta aurreko artikuluan nahiz indarreko legedian ezarritako mugak errespetatu beharko dira.

Bosgarrena. – Agindu honen aurreko apartatueta bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontratatzat joko dira eta horiek egiten dituztenak izango dira erantzule, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.



Seigarrena. – Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

Zazpigarrena. – Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.

Zortzigarrena. – Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki, agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkez daiteke organo honetan, hilabeteko epean agindua jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Era berean, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duenez, horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, ebazpena jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen,

MIGUEL TORRES LORENZO
BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA
EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILBURUARENA